



# AGATE DEUNA BEZPERA

## OLES OLES AMALURRA ESNA ZAITEZ!

*Otsailaren 4an, Agate Deunaren bezperan, koplazaharrak abesteko ohiturari eustera erabaki dugu.*

Agate Deuna kalejira burutuko dugu guztion artean **otsailaren 4an 17:30etik aurrera Ugarteko plazatik abiatuta**. Jarraian Herriko Plazan **askaria** egingo dugu, partaideok berton partekatzeko eramandako ekarpenekin (ekarpen hauek arratsaldeko 17:00etatik aurreera Herriko Plazan jasoko dira kalejiraren amaierarako prest egon dadin).

Ostiralean, **otsailaren 2an, 16:45ean, Laudio Ikastolako sarreran kalejira prestatzeko entsegu** burutuko dugu guztion artean.

Deialdi irekia da, haur, gazte eta helduok, familian zein lagun artean parte har dezagun, ahal dela baserritarrez jantzita. Antolaketa behar bezala garatu dezagun, egun bakoitzeko hitzorduetara **aurretik izena ematea eskatzen dugu formulario honetan:** (15 pertsona baino gehiago beharko dira ekintza burutzeko)

**izena eman**

### IKASTOLAKO PROGRAMA

Egun hauetan Agate Deuna bezperako koplak prestatzen arituko gara Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta ostiralean, **otsailaren 2an, Ikastola eremuan hainbat age-rraldi** burutuko ditugu. Horrez gain Haur Hezkuntzako etapan **3, 4 eta 5 urtekoek** familientzako **agerraldia** egingo dute **16:30ean**.

### GOAZEN

Datozen egunotan Araba Euskaraz programaren baitan, maiatzaren 25ean Amurrioko Antzokian egongo den **Goazen** taldearen ikuskizunerako sarrerak salgai jarriko dira. Egun horretan **emanaldi bi** eskainiko dituzte, eta Laudio **Ikastolako jaia** izango dela kontuan hartuta, bertaratzeako asmoa duzuenei **bigarren emanaldian** parte har dezazuen eskatu nahi dizuegu. Horrela, Ikastolaren jaia Goazenekoekin bukatuko genuke.

*Oles egitera gatoz!*

*Oles,  
oles  
lurra  
esna zaitez!  
Oles,  
oles  
lurra  
esna zaitez!!!*

*Aharrausi  
egin du basoak  
zuhaitzek  
zabaldu besoak  
kantuan  
hasi dira  
birigarroak  
eta zozoak.*

*Aharrausi  
egin du basoak  
zuhaitzek  
zabaldu besoak  
dantzari  
hasi dira  
azeriak  
eta otsoak.*

*Aharrausi  
egin du basoak  
zuhaitzek  
zabaldu besoak  
berriro  
entzun dezan  
taupadaka  
mündu osoak*





# AGATE DEUNA BEZPERA

## OLES OLES AMALURRA ESNA ZAITEZ!

El **4 de febrero**, la víspera de Santa Águeda, que daremos para cantar Santa Águeda.

Nos reuniremos en la kalejira “Agate Deuna” para despertar a la madre tierra **el 4 de febrero a las 17:30 en la plaza de Ugarte**. Al finalizar la kalejira realizaremos una **merienda en la Herriko Plaza** con lo que cada participante aporte (dichas aportaciones se recogerán en la plaza a partir de las 17:00 para que este preparado al finalizar la kalejira)

El viernes, **2 de febrero, a las 16:45, realizaremos un ensayo general** en Ikastola.

La convocatoria está abierta a la participación de niñas y niños, jóvenes y personas adultas, tanto en familia como en cuadrilla. Os animamos a acudir con ropa de baserritarra. Para poder organizar la actividad será **necesario inscribirse en el siguiente formulario** y para realizar la actividad serán necesarias como mínimo 15 personas:

[inscripción](#)

### PROGRAMA DE LA IKASTOLA

Estos días estamos ensayando las coplas de Santa Águeda en Educación Infantil y Primaria y **el viernes, 2 de febrero, realizaremos varias actuaciones en el recinto de la Ikastola**. Además el alumnado de **3, 4 y 5 urte cantará a las 16:30 en el patio de Ed. Infantil**.

### GOAZEN

Dentro del programa Araba Euskaraz, próximamente se pondrán a la venta las entradas para la actuación de **Goazen** que tendrá lugar el **25 de mayo** en el Antzoki de Amurrio. Ese día ofrecerán dos sesiones, y teniendo en cuenta que será la **fiesta de Laudio Ikastola**, a quienes penséis acudir a Goazen os pedimos que participéis en la **segunda sesión**. De esta manera, haremos el fin de fiesta con la actuación de Goazen.

Oles egitera gatoz!

Oles,  
oles  
lurra  
esna zaitez!  
Oles,  
oles  
lurra  
esna zaitez!!!

Aharrausi  
egin du basoak  
zuhaitzek  
zabaldu besoak  
kantuan  
hasi dira  
birigarroak  
eta zozoak.

Aharrausi  
egin du basoak  
zuhaitzek  
zabaldu besoak  
dantzari  
hasi dira  
azeriak  
eta otsoak.

Aharrausi  
egin du basoak  
zuhaitzek  
zabaldu besoak  
berriro  
entzun dezan  
taupadaka  
mündu osoak

